

2009/06/02

Zarautzko Arte eta Historia Museoa. "Barduliarrei buruzko antzerkia egingo dute"

Abuztuan egingo dira Zarautzen Erromatarren IV. Jardunaldiak eta dagoeneko hori antolatzen buru-belarri dabiltza Arte eta Historia Museoko arduradunak.

Hainbat berrikuntza izango dela jakinarazi dute egunotan eta, besteak beste, Patxi Santamaria aktoreak gidatutako antzerki lantegi bat abiatuko dute.

Kanpamentu barduliarra

Aurreko urtean izandako arrakasta handiari esker, boluntario talde bat dagoeneko hasi da Rosaleda parkean jarriko den barduliar kanpamentua prestatzen. Erromatarrek Euskal Herrira iritsi aurretik, Zarautz eta inguruko lurretan bizi ziren barduliarrek irudikatzea izango da kanpamentu honen helburua. Garai hartako eguneroko lanak egingo dituzte, barduliarren bizimodua ahalik eta fidelen islatu asmoz.

Esan bezala, jardunaldiak osatzeko antzerki lantegia antolatu dute, eguna iristen denean, herritarrek barduliarrekin lotutako eszena bat antzeztu dezaten. Aldez aurretik izena eman beharko da ekimen horietan parte hartzeko eta horretarako 943 835281 telefono zenbakira deitu edo info@menosca.com helbide elektronikora idatzi behar da.

Xabi Aizpurua Ugarte